

## PROIEKTUA

# EMAGIN, ikerketa eta trebakuntza feminista



## KOKAPENA

Andoain, Gipuzkoa, EH.

## ZER DA

EMAGIN, ikerketa, formazioa eta eskuhartze feminista sustatzen duen elkarte da. Jendarte eraldaketaren alde lan egiten dugu eta horretarako prozedura feministak erabiltzen ditugu gure oinarritzko lan esparruetan: Ikerketa, Formakuntza, Eskuhartze komunitarioa eta Ekoizpena.

## BALOREAK

Feminismoa  
Interseksionalitatea  
Euskara  
Ahduntzea  
Gorputza  
Sarean  
Ikuspegi kritikoa

[www.bilgunefeminista.eus/Emagin](http://www.bilgunefeminista.eus/Emagin)

## ZERTARAKO

- Gizarte egituretan prozesu zein praktika feministak bultzatzen ditugu.
- Ikerketa eta metodologia feminista eta komunitarioa sustatzen dugu.
- Trebakuntza feminista eta eskuhartze komunitarioa egiten dugu.
- Euskal Herriko emakumeen zein mugimendu feministaren ekarpenak biltzen ditugu.

“  
EZ DAUDE PENTSAMENDU  
ARRISKUTSUAK,  
PENTSAMENDUA BERA DA  
ARRISKUTSUA.  
Hanna Arendt



## EGUNGO EGOERA eta ERRONKAK

### Trebakuntza eta zerbitzuak:

- Trebakuntza: Emakume talde, talde feminista, herri mugimendu eta erakunde publiko zein pribatuetan formazioak eta aholkularitzak egiten ditugu.
- Eskola feminista iraunkorra: Epe ertainean eskola iraunkor bat sortzen ari gara aldaketarako ezinbestekoak diren eztabaidak sustatzeko.
- Espazio eta zerbitzuen kudeaketa: Emakumeen etxe zein bestelako zerbitzuak ahalduzaren estrategiaren mesedetan jartzeko ezinbestekoa ikusten dugu horien kudeaketa ikuspegi zehatz batetik egitea.

### Ikerketa, aholkularitza eta eskuhartze komunitarioa

- Ikerlarien eta ikerketa egitasmoen saretea: Euskal Herrian asko dira lan eremu honetan diharduten elkarteak. Gainera, geroz eta ikerlari gehiago daude teoria feminista zein epistemologia feminista oinarri dutenak. Horien guztien saretea eta elkarlana bultzatzea ezinbestekoa da guretzako.
- Ikerketa proiektuak: Euskal Herrian asko dira eremu edo sektore anitzetan dokumentazio, ekoizpen zein informazio bilduma garatzen duten proiektuak. Horiez gain, gu geu parte garen errealitate politiko, ekonomiko eta sozial honetatik egindako analisi eta ikerketa feministak egiten ditugu.

### Hedapena eta ekoizpena

- Ikerketa lerroa sustatzeaz gain, hauek herrigintzaren mesedetan jartzeko eta horiek hedatzeko beharrezkoak diren bitarteko eta tresnak eskeintzen ditugu.
- Ekoizpen proiektuak sustatzen ditugu eta horrekin batera, egindako ikerketak dibulgatu.

### Dokumentazioa eta artxiboa

Artxibo feminista izaera askotariko dokumentuak jasotzen ditugu, hala nola: argitalpenak, argitaratu gabe dauden dokumentuak, paperezko argitalpenak, ikusentzunezkoak... Euskal Herrian badira artxibo feministak, baina guk batez ere honako irizpideen arabera dokumentu bilketa egiten dugu: Euskal Herriko ikuspegia biltzen duten ikerketa feministak. Mugimendu Feministak eta herri mugimenduetatik sortutako dokumentuak. Argitaratu gabe dauden eta eskuratzeko zailagoak diren hainbat dokumentazio interesgarri. Bestelako artxibategi, liburutegi, liburu denda, internet bidezko soportek... guzti hauetan aurki ditzakegun dokumentuak ez ditugu guk beste behin ere jasoko eta eskuratu (beharrezkoenak izan ezik), baizik eta artxibategiaren bidez, dokumentu interesgarri hauek zein dokumentazio zentroetan aurkitzen diren argitzen, aholkatzen eta errazten saiatzen gara.

## OBJETIVO

- Fomentamos prácticas y procesos feministas en las estructuras sociales.
- Promovemos la investigación y la metodología feminista
- Trabajamos en la formación feminista y hacemos intervenciones comunitarias
- Recogemos aportaciones de las mujeres y asociaciones feministas de Euskal Herria

## DESCRIPCIÓN

EMAGIN es una asociación que trabaja para promover la investigación, formación e intervención feminista. Trabajamos a favor de la transformación social y para ello empleamos procedimientos feministas en nuestras principales áreas de trabajo que son la investigación, la formación, la intervención comunitaria y la producción. Nuestros valores son los siguientes: el feminismo, la interseccionalidad, el euskera, el empoderamiento, el cuerpo, trabajar en red y la mirada crítica.

## RETOS

En el ámbito de la formación queremos crear una escuela de feminismo permanente en un plazo medio. Otro de nuestros retos es trabajar en red con las investigadoras e investigaciones feministas. Creemos que es imprescindible la colaboración y cooperación en este área. Creamos y divulgamos trabajos de investigación y los ponemos a disposición de la ciudadanía. Por último, estamos trabajando en un archivo feminista, constituido con nuestros propios criterios.

“  
No hay pensamientos peligrosos.  
El pensamiento mismo es peligroso.  
Hanna Arendt

”